



Ordubeteko lanuztera deitu du biharko LAB sindikatuak

TOLOSALDEA ▶ 12:00etatik 13:00etara izango dira geldialdiak eta elkarretaratzeak lantegietan

ALDARRIKAPENA ▶ LABek dio ospatzeko arrazoirik ez dagoela Lan Osasunaren Nazioarteko Egunean ▶ 2

LEITZA ▶

Urkiolaren liburuak zeresana piztu du


Franco gorai patzen du, besteak beste, UPNko zinegotziak ▶ 7

YOLANDA ARRIETA ▶ IDAZLEA



HITZA

«Literatura plazererantz bideratzea da gakoa» ▶ 4



Bilbora joateko deialdia egin du AHT Gelditu! Elkarlanak

ANOETA ▶ Larunbatean Bilbon egingo duten Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako manifestazio nazionalera joateko deialdia luzatu dute Anoetako AHT Gelditu! Elkarlaneko kideek. Herenegun eginiko agerraldian —argazkian— Bilbora joateko garrantzia aipatu zuten, «gobernuek Euskal Herrian AHT inposat-

zko asmoz hartu dituzten erabaki larriei erantzuteko». 17:30ean abiatuko da martxa Jesusen Bihotzaren plazatik. Autobusa antolatuko dute bertara joateko, 15:15ean Triangulo plazatik eta ondoren Anoetako plazan eta Villabonako Olaederra kiroldegian geldituko da. Autobusaren prezioa 10 euroko da. N. URBIZU ▶ 5

TOLOSA ▶

Mariza fado abeslaria gaur zuzenean ariko da Leidor aretoan

'Concerto em Lisboa' ikuskizuna eskainiko du artista portugaldarrak ▶ 3



Mariza abeslaria. HITZA



GUTUN@K ▶

Hizkuntz
politika (III)

Euskal hiztun komunitatea berrosatu eta euskararen garapen osoa ziurtatzeko, bi belaunalditan ezinbestekoa da ezker abertzaleak Hego Euskal Herriko bi parlamentuetan aurkeztu duen Euskara Berreskuratzeko Legea indarrean jartzea Euskal Herri osoan. Besteren artean, belaunaldi berri guztiak euskalduntzeko eskolan, goi irakaskuntzan nahiz unibertsitatean; lan munduan, legeak enpresak behartu ditzan euskara planak indarrean jartzera; administrazio guztien hizkuntza euskara izan dadin; komunikabideak euskaraz edo elebidunak izan daitezzen eta abar.

Hortaz, Euskal Herria euskalduntzeko derrigorrezkoak dira esparru politiko berria, euskararen lege berria sustapen neurri berriak eta herri gogoia. Tokian tokiko sektore sozial ezberdinetan testuinguru euskaldun berriak sortzen eta gehitzen joateko. Giro euskaldun horietan euskaldunok euskaraz bizi gaitezten, hiztun berriak erakartzeko, etorkizun euskalduna eraikitzeko. Bi norabideetan berrelikatze: testuinguru euskaldunetik norbanakora eta norbanakotik testuingurura. Esparru, lege eta neurri horiek gabe, Euskal Herri euskalduna lortzea irreal da. Herritarren eta eragileen borondatea ezinbestekoa da, baina oraindik ez da nahikoa minorizatua baitago. Ez da pazientzia kontua. Menpeko hizkuntz politikak ez du balio Euskal Herria euskalduntzeko, nahitazkoa dena ezinezkoa delako.

Euskal Herria berreuskalduntzea ez da inoren inposamena, guztion lorpen demokratikoa baizik. Pertsonen, hizkuntzen eta herrien berdintasunaren printzipio unibertsalaren ondorioa. Horren bidez, euskarak eskubidea du Euskal Herri osoan ofiziala izateko, gaztelaniak Espainian eta frantsesak Frantziaren estatus eta ofizialtasun berarekin. Hori baita modu bakarra Europarren, hizkuntzen eta herrien arteko egiazko aukera berdintasuna bermatzeko. Ez gara euskaldunak Euskal Herrian jaio edo bizi garela, euskaraz bizi garela baizik. Eta euskararen gordetzailerak bakarrak garenez, Euskal Herriak euskaldun irau behar du. Hizkuntz gatazka konpontzeko garaia da.

INAXIO AGIRRE (AUB) ▶ TOLOSA

EKONOMIA ▶

LAB sindikatuak
ordubeteko lanuztera
deitu du biharko

Etzi Lan Osasunaren Nazioarteko eguna izango da, baina sindikatu abertzalearen ustetan aldarrikapenerako da

ESTI EZEIZA

Larunbat hau, hilaren 28a Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna da. Horregatik honen harira, ordubeteko lanuzteetara deitu ditu LAB sindikatuak biharko, 12:00etatik 13:00etara bitartean egingo da geldialdia, eta lantegien aurrealdeetan egingo dira konzentrazioak. Sindikatu abertzalearen esanetan, joan den urteko eta aurtengo lan istripuen datuak ikusi eta gero ez dago Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna ospatzeko arrazoirik, «are gutxiago itzurakerietan galtzeko. Guretzako, aldarrikapen eta borroka eguna da hori» esan dute LABeko ordezkariak.

Sindikatu abertzaleak luzatutako datuen arabera, iaz Euskal Herrian 129 langile hil ziren lan istripuetan, eta aurtan, dagoeneko 40 lagunek galdu dute bizia. Zifra hauei gehitu

behar zaizkie ere joan den urtean, lantokietan gertatu ziren istripu larriak eta 64.897. Bestalde, hauek gain estatistiketan agertzen ez diren eta lanaren ondorioz gaixotu diren langileak asko daudela gogorarazten dute LABekoek. Gainera, «datu ofizial horietan agertzen ez diren istripu asko ere badaude, denen berri ez baita ematen».

Langileen eguna

Urtero bezala maiatzaren 1ean Langileen Nazioarteko Eguna izango da. Hori dela eta, mobilizazioetara deitu dute LABekoek egun horretarako. *Autodeterminazioaz aldaketa garaia. Euskal Herria gorria* lelopean Goierrikoek eta Tolosaldekoek elkarrekin egingo dituzte ekintzak. Urretxutik 10:00ak aldera abiatuko da autokarabana, eta herriz herri joango da Tolosara iritsi arte. Hemen, Triangulo

plazan elkartuko dira bi eskualdeetakoak, eta 12:00etan manifestazioa egingo dute Plaza Berrira iritsi arte. Hor egingo dute jarraian ekitaldi ofiziala.

Aurtengo maiatzaren lehena LABekoek ustetan, «langilerien gehiengoak nahi eta behar duen benetako aldaketa politiko eta soziala aldarrikatzeko, konpromiso eta mobilizaziorako eguna izan behar du inoiz baino gehiago». Honekin lotuta, autodeterminazio eskubidea aitortzea oinarriko bitarteko gisa jotzen dute gatazka konponbiderako. Horregatik, LABek eskubide honen defentsan hartutako konpromisoa berretsi nahi du eta borroka hori euskal langileria zabaltzera ere konprometitzen da. Beraien esanetan, euskal langileriak beharrezkoa du aldaketa, «eredu neoliberalen efektuei aurre egiteko», hain zuzen ere.

MUSIKA ▶



Hodei Truk abesbatza Mallorcan izan da

E. Ezeiza ▶ Joan den asteburuan Hodei Truk abesbatzak Mallorca bisitatu zuen, hango gazte abesbatza batek gonbidatuta. Iaz Mallorcan Onzetretze abesbatzak bere 20. urteurrena zela eta, David Azurzari abesti batzuk eskatu zizkion. Ho-

nek *Cantijocs de les Illes* obra idatzi zien Mallorcano kantu eta ahokorapilo herriko batzutan oinarrituta. Obrarekin gustura geratu ziren eta Hodei Truk abesbatza kantu horiek Mallorcan interpretatzera gonbidatu zuten. HITZA

TOLOSA ▶

Heriotzaren
inguruko hitzaldia
izango da gaur

Samaniego ikastetxeak gura-soentzako hitzaldi bat antolatu du gaurko. Jorratuko den gaia heriotza izango da. Honen aurrean nola jokatu behar den azalduko du Patxi Izagirre psikoterapeutak. Mintzaldia 17:00etan izango da, Tolosaldea Lanbide Heziketa institutuko areto nagusian.

TOLOSA ▶

Aparteko Osoko
Bilkura deitu du
biharko Udalak

Udalak Aparteko Osoko Bilkura egingo du bihar 08:00etan, udaletxean. Jorratuko diren gaiak ondorengoak izango dira: Udala eta Batzar Nagusietarako egingo diren hauteskundeetarako mahaikideak izendatzeko zozketa eta iragarkiak dohainik jartzeko erabilgarri dauden tokien banaketa.

TOLOSA ▶

Helduentzako
kurtsoetarako
aurrematrikula

Helduen Heziketa Iraunkorrak 2007-2008 ikasturterako antolatutako kurtsoetan aurrematrikula egiteko epea irekita dago jada. 18 urtetik gorakoentzako dira eskola hauek, eta doakoak dira. Izena ematea Tolosan, Igerabide kalean duen egoitzan edo Villabonakoan egin daiteke. Baita ere 943 67 26 00 telefono zenbakira deituta.

TOLOSA ▶

Perez Busterok
bere lan berria
aurkeztuko du

Jose Luis Perez Busterok bere liburu berria aurkeztuko du gaur 19:30ean, udaletxeetako batzar aretoan. *Los nuevos vascones* izeneko lan honetan, etorkinei, «bas-koi berriei» alegia, dagokien lekua egin nahi izan die eta daukaten garrantzia eman. Egileaz gain, Saad Malec Su-beir tolosarra izango da bere esperientzia kontatzen, eta ondoren, eztabaida egingo dute bertaratuko diren guztien artean.

MUSIKA ▶

Mariza abeslaria gaur zuzenean, Leidorren

21:00etatik aurrera izango da kontzertua; 'Concerto em Lisboa' ikuskizuna eskainiko du artista portugaldarrak

INIGO TERRADILLOS

Mariza fado abeslari ezagunak kontzertua emango du gaur, Leidor aretoan, 21:00etatik aurrera. Tolosako Udalarren eta Syntoramaren (Donostian finkatua, 15 urte daramatza munduko musika eta musika berrietako artista handienekin lanean) artean gauzatzen ari diren Mundua Tolosan izeneko zikloa zabalduko duen emanaldi honetan *Concerto em Lisboa* ikuskizuna aurkeztuko du. Bertarako sarrerak www.kutxa.net-en, 943 411 200 zenbakian edo Servikutan eskuratu ahalko dira.

Mariza egungo fadistarik internazionalena dela esan daiteke. Mozanbiquen jaiotako portugaldar hau Portugal eta



Mariza fado abeslaria emanaldi batean. HITZA

bere kulturaren enbaxadore handia da. *Concerto em Lisboa*-n bere fado hirukotea eta hari-instrumentu laukotearen laguntzaz, 2006ko irailean hiri horretan zuzenean eskainitako errezitaldia aurkeztuko du. CDan eta DVDan atera berri dena, hain zuzen.

Ezuste berezi batekin

Mariza abeslari portugaldarrak adierazi duenez, gaur Tolosako Leidor antzokian emango duen kontzertuan ezuste berezi bat eskainiko du. Dena den, ustekabea zertan datzan ez du argitu nahi izan, baina dudarik gabe Euskal Herriko musikarekin zerikusia izango duen zerbait izango dela azaldu dute antolatzaileek. «Marizak aspaldian horrekiko interesa adierazi baitu, eta gure musika gero eta hobeto ezagutzen du». Honen bitartez, Tolosako kontzertuan une paregabea eskaintzeaz gain, garai guztieta fadista handienak garbi egiaztatuko du bere musikarekin jakinarazi nahi duen mezua: kulturak ez duela mugarik.

Kontzertura arte itxaron behar da, beraz, sorpresaren berri izateko.

KIROLAK ▶

Patxi Urizar Euskadiko txapel-dun berria

Distantzia luzeko duatloian denborarik onena egin zuen; Luis Mari Urizar 17.a

ERREDAKZIOA

2:45:08 behar izan zituen joan den larunbatean Patxi Urizarrek (Kraff-Atletiko) 14-57-7 distantzia burutu eta bide batez Euskadiko txapel-dun bihurtzeko distantzia luzeko duatloian. «Erraz» irabazi zuen gainera, bizikleta saioan inork ezin izan baitzion aurre egin (partzialik onena berea izan zen) eta azken korrika saiora dena bere alde zuela heldu zen. Helmuga ia bi minutu pasatxo sartu zizkion bigarren sailkatuari. Denboraldi honetan ere emaitza onak ari da lortzen, beraz, Patxi Urizar.

Bestalde, Luis Mari Urizar (Kraff-Atletiko) Patxi Urizarren anaia 17. amaitu zuen, eta honen atzetik geratu ziren TTT-ko bi partaideak Unai Aizpuru 51. eta Ibon Gonzalez 70. Egoitz Zalakainek (Kraff-Atletiko) ordea ezin izan zuen proba amaitu.

Igandean, Senperen

Tolosaldeko Triatloi Taldekoak eta eskualdeko hainbat kirolari ere Senperen lehiatuko dira igandean, Senperen Triathlon Cote Basque delakoan, hain zuzen. Denboraldiko lehena izango da eta gogotsu daude, denboraldiko helburu nagusiak bertan baitutuzte jarrita neska mutilek. Distantzia olimpiko bati egin behar diote aurre 1.5-40-10. Maiatzaren 20an hasiko den Euskadiko Zirkuitura begira test polita izango dela diote kirolariek.

KIROLAK ▶

Olano Marokoko Titan Desert proban ariko da

Bost etapa izango dira, 500 kilometro denera

ERREDAKZIOA

Abraham Olano anoetarrak erronka berri bati egingo dio aurre bihurtik aurrera, Marokoko Titan Desert mendi txirindularitza probari, hain zuzen ere. Iraupen txirindularitza munduko txapel-duna izandakoak Marokoko basamortuan zehar bost etapa egingo ditu, 500 kilometro de-

nera. Olanok Melchor Mauri eta Jordi Anteman txirindulari ohiak izango ditu taldekide hango baldintza zailetan.

Proba honetarako, indarrak gain, GPSarekin ondo moldatzea oso garrantzitsua izango dela azaldu du anoetarrak. «Hainbeste ordu bizikletan ibiltzeak ezer berezirik ikusi gabe bistara kalte egingo digu», adierazi du.

GIZARTEA ▶

Lehen Sorospen eta Sorosle ikastaroa abian

Maiatzaren 7an hasiko du DYAK

ERREDAKZIOA

Sorosle eta Lehen Sorospen ikastaro berri bati hasiera emango dio DYAK Gipuzkoako Tolosan maiatzaren 7an. Ikastaro hau herritar guztiarentzat zuzendua izango da. Ikastaroak 3 aste iraungo ditu, eta 19:30etik 21:30era astelehene ostiralera izango da DYAn, Larramendi kalean.

Ez da beharrezkoa ezagupenik izatea, eta egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko dute. Frogak gainditzen dituenak, sorosle titulua eskuratzeko eta EHUra 2 kreditu jasotzeko aukera izango du. 75 euro ordaindu behar dira. Izena emateko edo informazio gehiagorako 943 46 46 22 zenbakian.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

YOLANDA ARRIETA ▶ IDAZLEA

«Gakoa literatura plazererantz bideratzea da»

Yolanda Arrietak gurasoei zuzenduriko literaturari buruzko tailerra emango du

I. GARCIA

Irakurketaz gozatzen tailerra emango du Yolanda Arrietak (Etxebarri, Bizkaia, 1963) Anonetan, 0-5 urteko haurrei zuzenduta. Bihar amaitez eta izena emateko epea, udaletxean edo liburutegian.

Zer landuko da tallerrean?

Hiru saio izango dira. Lehenengoan literaturara hurbiltzea da asmoa, bigarrenen poesia deskubritzea eta azkena kontatzeari, irakurtzeari, asmatzeari buruz. Asmoa ez da bakarrik informazioa ematea, gurasoek esatekoa dutena jasotzea ere.

Literaturara nola hurbildu gaitzeko?

Liburuen atzean kontatzeko eta entzuteko beharra dago eta horri garrantzia eman behar zaio. Elkarrekin egotea eta kontuak esatea oso garrantzitsua da eta hori egunerokotasunera eraman behar dugu.

Zer da deskubritu behar dena poesiatik?

Egun poesia liburu asko dautu, baina badirudi poesiak beldurra ematen duela. Mitifikatu egin dugu eta beraz aldentu gugandik. Poesiari buruzko saioan ahozko tradizioak jasotzen saiatzen naiz, ahokorapiloak, asmakizunak...

Hirugarren saioan nola kontatu azaltzen duzu.



HITZA

Aurrean daukaguna behin ezagutuz gero, behin jakinez gero zer gustatzen zaion, hortik abiatu gaitzke kontatu beharrekoa nola egin dezakegun jakiteko. Nola hasi ipuin batetik, zer amaiera eman ditzakegun, kontatzeko eta irakurtzeko modu ezberdinak, letra gabeko irudiek nola egin...

Egun gurasoak nahiko denbora egoten dira haurrekin?

Denetarik dago. Guraso asko lanpetuta bizi dira, denbora gutxi dute gustuko gauzak egiteko. Errealitatea hori izanda, haur txikienen gurasoak ilusio handiarekin hurbiltzen dira tailerrera. Bestalde, informazio asko dago egun eta gurasoak pixka bat galduta sentitzen dira horren aurrean. Literatura plazererantz bideratzea da gakoa. ◀

VILLABONA ▶ KULTURA

Barrea eragiteko prest

Galartzarekin eta Usabiagarekin 'Bota patsa!', bihar Gurean

IMANOL GARCIA

«Bizitzan edozer lortzeko izerdia bota beharra dago». Horrela laburbiltzen du Joseba Usabiaga aktore tolosarrak, Iker Galartza aktore tolosarrarekin batera idatzi eta interpretatzen duen *Bota patsa!* antzezlari buruz. Aurretik egindako *Errelebo*a obra bezala, komedia kutsukoa da hau ere. Herenegun Gurea aretoan Zizurkil eta Villabonako gazteei zuzenduriko emanaldia egin zuten eta bihar, nahi duen publikoari zuzenduta, eskualdean lehen emanaldia emango dute. Gurea aretoan izango da berriz ere, 22:30etik aurrera.

*Errelebo*a antzezlari arrakastatsuen ondoren, bi aktoreek elkarlanean jarraitzea erabaki zuten. «Elkar ondo ezagutzen dugun», dio Usabiagak. «*Errelebo*a antzezlariaren emanaldiak bukatu egingo zirela esan zigutenean, elkarrekin beste zerbait egitea pentsatu genuen». Kasu honetan, antzezlari beraiek idatzi dute. Behin ideia pentsatu ondoren, ez zaie hain zaila egin idaztearen kontua. «Zailagoa da obra bat ematen dizutenean eta interpretatu behar duzun per-



Bota patsa!-ren kartela. HITZA

tsionariara egokitu behar zaren. Obra honetarako, ideia zehatu ondoren, errazagoa izan da bakoitzari egokitzen zaizkigun testuak idaztea, gure esamoldeekin».

Antzezlariaren bosgarren emanaldia izango da bihar Gurean egingo dutena. Orain hila-bete egin zuten estreinaldia Pasaian. Bi hilabete inguru hartu zituzten obra idazteko eta beste bat entseguak egiteko. «Alex Ezkurdia jarri ziguten zuzendari bezala. Goenkalen urte dezente aritu da lan horretan. Asko daki eta zuzendari ona da. Antzezlari borobiltzen la-

gundu digu», dio Usabiagak. Emanaldiak egin ahala obra bere bidea egiten ari da eta dagoeneko «oso itxuroso» dagoela dio. Herenegun gazteei zuzendutako emanaldian, «harrera ona» izan zuela dio Usabiagak. «Zenbait gauzetan barre egiten zuten eta beste batzuetan ez. Ostiral gaueko emanaldian beste gauza batzuk eragingo diete barrea».

Artista eta enpresarioa

Izquierda izanik obrari izena ematen dioena, gimnasio batean kokatu dute istorioa. Artista izan nahi duen ikasle bat eta enpresario bat elkartzen dira bertan eta batak besteari etorkizunerako asmoak esaten dizkio. «Bizitza zerbait lortzeko ekintzailea izan behar zarela da mezua, izerdia, patsa bota behar dela», azaltzen du Usabiagak.

Mezu hori komediarekin uzartzen dute, bi aktore tolosar hauei ondo egokitzen zaion generoa. «Nik uste dut joaten direnak ondo pasatuko dutela», dio Usabiagak. «*Errelebo*a gustuko izan zutenek, *Bota patsa!* ere gustuko izango dute», gaineratzen du.

PING PONG ▶

Ernio-bea eskolakoak txapel-dun Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan

Ane Chaparro eta Itziar Gastearenak lortu zuten, infantil mailan

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa jokatu berri dute alebin eta infantil mailetan. Infantil mailan, Ernio-bea eskolako Ane Chaparro eta Itziar Gastearenak lehen postua lortu zuten. Lorturiko garaipen horrek aukera emango die Getxon (Bizkaia) ekainean jokatuko duten Euskadiko Txapelketara joateko.

Infantil mailan ere, Ernio-bea Eneko Garcia, Aitor Atxaga eta Iban Gorostidi ezin izan ziren finalerdietara igaro, sailkapen taldean hirugarren gelditu eta gero.

Alebin mailari dagokionez, Laskorain Ikastolako Ander



Chaparro eta Gastearena, Txema Armentia prestatzailearekin. HITZA

Gorostidi eta Beñat Bidaola eta Jesusen Bihotza Ikastolako Julen Jaca eta Andoni Beobide lehenengo postua eskuratu zuten bakoitzak bere sailkapen

taldean. Gero, Laskoraingo Ikastolako finalerdietara iritsi ziren eta Jesusen Bihotzakok, berriz, final-laurdenetara iritsi ziren.

Druidas y leyendas
TOLOSA
 apirilak
27
 ostirala
20:30
 LEIDOR
 www.tolosakal.com

ZIZURKIL ▶

Gaur haurrek izango dira antzezleak

Gaur, Zizurkilgo V. Antzerki Astearen baitan, Pedro Mari Otaño ikastetxeko haurren emanaldia izango da Atxulondo kultur etxean. 15:30etik aurrera izango da eta bi saio egingo dituzte. Horietako bat *Hiru txerrikoak* izango da. Antzezlan hauek izango dira barruan egingo diren azkenak, bihar eta etzi kanpoan, kalean izango baitira.

ALTZO ▶

Toti Martinez de Lezearen hitzaldi arrakastatsua

Ostiralean iluntzean Toti Martinez de Lezea Altzoko Lizarben izan zen. «Oso harre-
ra ona izan zuen», beteta baitzegoen, eta bide batez, «interesgarria» izan zen hitz egin zuena: Euskal Herriko sorginez baliatu zen XVII. mendeko istorioak kontatzeko, eta egia eta gezurraren arteko nahasketak argitzeko. Dirudienez, ez zen guk eza-gutuzen ditugun sorginik izan.



Jendea «gustura» egon zen Toti Martinez de Lezea entzuten. HITZA

AMEZKETA ▶

Herri programa aurkeztuko du ezker abertzaleak

Bihar, azken ostiraleko elkarretaratzearen ondoren, Amezketa baliogintzako gelan Udal Hauteskundearen atarian, Amezketa ezker abertzaleak bere herri programa aurkeztuko du. 20:00etan bilduko dira eta «Amezketa berri horren bila joateko bide horretan, denok zaudete gonbidatuta». Beraz, bihar egingo dute aurkezpena.

AHT ▶

Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak Bilborako deialdia egin du

Autobusa antolatu dute eta Tolosako Triangulo plazatik abiatuko da, ondoren Anoetatik eta Villabonatik igaroz



Herenegun AHTren kontrako manifestazio nazionalerako deialdia egin zuten. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Herenegun iluntzean Anoetan prentsaurrekoa egin zuen AHT Gelditu! Elkarlanak, «gogor salatu Euskal Herrian AHT inposatzeko asmoz administrazioek erabaki larriak hartu dituztelako».

Asmoa salaketa egitea zen eta herritar guztiei mobilizatzeko deialdi berezia egitearena, «governuek Euskal Herrian AHT inposatzeko asmoz hartu dituzten erabaki larriak erantzuteko». Hala, etzi Bilbon izango den AHT gelditzearen aldeko manifestazio nazionalera joateko deialdia egin zuten, *AHT Gelditu orain!* lelopean, «gizarteak AHTren inposaketa-

ri ez esan diezaion». 17:30ean izango da Jesusen Bihotzaren plazatik hasita.

Euskal Yaren eraikuntza lanei ekin diete, «Lapurdin TGV-
rentzat abiadura handiko linea berria eraikitzeke egitasmoa berrabiatu dute, eta Nafarroako AHTren aldeko apustu zitala egin dute. Gero eta jende gehiago gaude honen aurka».

Bilbora joateko autobusa

Tolosaldetik autobus bat antolatu du *AHT Gelditu! Elkarlanak* etzi Bilboko manifestazioa joateko. Autobusa 15:15ean abiatuko da Tolosako Triangulo plazatik eta ondoren Anoetako plazan eta Villabo-

nako Olaederra kiroldegian geldituko da. Autobusaren prezioa 10 eurokoa da.

Zizurkildik Urnietarako

Trenbide Zuzendaritza Orokor-
rak Zizurkildik Urnietarako tramoa onartu du. Alegazioak egiteko denbora ere izan da: horien artean, tartean dagoen harrobiari kalteak egiten zitzionez, enpresak alegazio bat aurkeztu zuen. Honi sustapen ministerioak erantzunez, bidea zerbait aldatu dute. Baina, prentsaurrekoan esan bezala, «horrek beste eragin batzuk izango ditu: beharrezko tanelak luzeagoak izango dira, besteak beste».

ALEGIA ▶ PILOTA



7e Pasa Pilota Txapelketan 19 bikotek hartu dute parte. E. EZEIZA

7e pasako finala igande arratsaldean izango da

Artola-Gallarreta eta Zubeldia-Iriarte dira lehian: 3. eta 4. postuak ere jokatuko dituzte

N. URBIZU

Igandean II. Zazpie Pasa Pilota Txapelketako irabazleak zein diren erabakiko dute, bi partidatan. Lehenengo norgehiagokan Murua anaia Gari-Beñat aurka ariko dira hirugarren eta laugarren postuak jokatzen.

Txapel handiena, berriz, Artola-Gallarreta eta Zubeldia-Iriarte bikoteen artean dago, bigarren partidatan, hain zuzen. Aurreko asteburuan izandako emaitzak hauek izan ziren: Iriarte-Zubeldia 22, Murua

anaiak (Jon eta Beñat) 9. Gari-Beñat 17, Artola-Gallarreta 22. Bietan ere, kalitatea izan zen.

Sariak izango dira ondoren

17:00etan hasiko dira eta orain arte ikusitako giro eta maila ikusita, igandekoa ez da gutxiagorako izango: jendea joatea espero dute, Alegiko pilotalekuan. Gero sari banaketa egingo dute. Irabazleentzat txapelak eta afaria izango dira, eta finalistentzat, hau da, bigarren egiten dutenentzat afaria.

iragarki laburrak ▶

LANA
Tabernaria. Kamarera edo kamareroa behar dugu Tolosako Ruben garagardotegian. Arratsalde eta asteburuetarako. 687 57 10 49 telefono zenbakira deitu.
Zerbitzaria. Tolosaldean taberna baterako zerbitzari bat behar da lau

orduz lan egiteko. 635 74 52 91 edo 943 69 43 13.
Zaintzailea. Albizturren, bi haur zaintzeko pertsona behar da autoarekin. 662 01 92 62.
Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Interesatuek deitu: 943 69 19 33.

POLITIKA ▶



Joan den hilean, urtemugem omenez Ibarren egin zen azken ostiraleko elkarretaratze berezia. HITZA

Bihar, azken ostirala, elkarretaratzeetara deitu du Etxeratek

«Preso politikoaren eskubideak murrizteaz gain Igor Letona Nanterreko espetxean jipoitua izan da», salatu dute

ASIER IMAZ

Bihar azken ostirala dela eta, eskualdeko Etxeratek elkarretaratzeetara deitu du ohiko lekuetan. Preso eta iheslariaren egoera gogorra salatzeak kalera ateratzeko deia zabaldu dute, «gutariko bakoitzaren konpromisoak presioa indartzen bultzatu behar gaitu. Espainiak eta Frantziak indarrean duten espetxe politika honi amaiera ematera behartzeko».

Egoera «gero eta larriago» bilakatzen ari dela esan dute; «gaixotasun larri eta sendaezina dituztenak kalean utzi beharreen, 15, 20 eta 27 urte bete ondoren ere ez dituztelako askatzen edo kartzelaldia luzatzen dietelako».

Gauzak aldatu beharrean «okerrera» doazela salatu dute, «gure senide preso politikoaren aurkako neurriak oraindik eta gehiago gogortu dituzte: miaketak, biluzteak, patio

orduak murrizketak, traslodean tratatu txarrak...» jarri dituzte adibide bezala. Igor Letona Nanterreko kartzelan «jipoitu izana» ere salatu dute. «Kalera irtetea inoiz baino garrantzitsuagoa da, konpromisoarekin lortuko baitugu».

19:30ean, Tolosa, Ibarra, Alegia, Amezketa eta Anoetan elkartuko dira. 20:00etan berriz, Lizartza, Ikaztegieta, Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna eta Leiztan.

AIZKORA ▶

Jon Rekondo larunbatean sartuko da lehian

Jon Rekondo leitzarrak larunbat honetan jokatu du Armentian, Urrezko Aizkorako ligaxkaren lehen norgehiagoka. Gasteizen eguerdiko 12:30ean jokatu den lehian arerio gogorra izango du aurrean. A taldeko eta txapela irabazteko hautagai nagusia den Floren Nazabal nafarra. Anjel Arrospidek bere aldetik astebete gehiago itxaron beharko du lehen norgehiagokarako, maiatzaren 6ean lehiatuko baita Peñagarikanoren aurka.

IBARRA ▶

Igandean hirugarren moto bira egingo dute

Langostino Moto Kultur Elkarteak antolatzen dituen Moto Birak aurrera jarraitzen dute. Igandean honetan hirugarren bira egingo dute Gipuzkoa eta Nafarroako errepideetan barrena. Irteera beti bezala Ibarra San Bartolome plazatik izango da goizeko 9:30ean, «Mikelek Sendi Ekintza irekitzea espero» dutela aipatu dute erdi txantxetan antolatzaileek. Izena emateko berriz, 636 40 31 70; 653 01 39 97 eta 670 41 79 15 telefonoak jarri dituzte.

IBARRA ▶

Etzirako ezohiko bilkura izango da udaletxean

Udalbatza osoaren ezohiko bilkurarako deialdia egin du Ibarra Udalak, bere alkate Chelo Romeoren eskutik. Etzirako deitua dago batzarraren pleno aretoan eta bertan, 2007ko maiatzaren 27ko Gipuzkoako Batzar Nagusietarako eta Udal Hauteskundeetarako hautes-mahaietako kideen hautaketa egingo da. Deialdi honekin beraz, udaletxean ardura duten hamar politikariak deitu ditu Chelo Romeok Ibarra alkateak.

OREXA ▶ JAIK

Hilaren hasieran egingo dituzte herriko jaiak



Oreako jaiak iragartzen dituen kartela aurkeztu dute. HITZA

A. IMAZ

Oreako festen egitaraua aurkeztu dute herritarrek. Maiatzaren 3an, ostegunean, 12:30ean, hasiko dira jaiak oilarren jaietsierekin. 13:00etan sega apustua egingo dute neska-mutilen artean. Hurrengo egunean, ostirala, sardin jatea eta antzerki ema-

naldia antolatuta dituzte 20:00etatik aurrera. Ondoren DJ Bullek disko festa girotuko du, bere lema nagusiarekin: bakailua sagardotegian.

Larunbatean herri afaria, Imuntzo eta Beloki, DJ Bull eta Gari eta Iñakirekin kalejira. Azken egunean berriz, herri kirolak, sagardo probaketa eta bertsolariak egingo dira.

IBARRA ▶ GAZTETXEA

Lor taldearen orde, Kerobiak joko du



Garagardo festan lau kontzertu antolatuta dituzte Gaztetxean. HITZA

A. IMAZ

Maiatzaren 4 eta 5ean kontzertuak antolatuta dituzte Ibarra Gaztetxean. Lehenean ostirala izango da, eta 22:30ean hasita, Potemkin eta Neubat taldeak entzun da ikusteko aukera egingo da. Hurrengo egunean berriz, la-

runbatean, ordu berean hasiko diren kontzertuetan, hau da, 22:30ean, Ezinean eta Kerobia taldeak ikus-entzuteko aukera izango da. Antolatzaileek Lor taldea iragarri bazuten ere, arrazoiz ezberdinengatik ezin izango dira Ibarra etorri eta euren orde, Kerobia talde nafarra ekarri dute.

LEITZA ▶ GIZARTEA

PATXI ZABALETA

ARALARKO KIDEA ETA IDAZLEA

«Nire ustez Urkiolak idatzitako liburua bakea, normalizazioa eta aniztasunaren aurka doa»

PATZIKU PERURENA

IDAZLEA

«Euskara Ofiziala erabiltzen duten instantzia guztiek erantzun bat eman beharko lukete»

DABID ANAUT

EUSKARA TEKNIKARIA

«Larriena Nafarroko Gobernuako kide batek gure diruarekin aleak erosi eta banatuko dituela esatea da»

SILVESTRE ZUBITUR

UPN-KO ZINEGOTZIA

«Belauniko isilik bagaude ez dago polemikarik, baina baten batek zerbait esaten badu, akabo»

PATXI SAENZ

ALKATEA

«Mota honetako idatzi hauek herriaren irudiari ez diotela batere mesederik egiten iruditzen zait»

Pello Urkiolak argitaratu berri duen liburua zeresan handia sortu du herritarren artean

Liburua joan den ostegunean aurkeztu zuen Urkiolak Iruñean, Nafarroako Unibertsitateko eta Hizkuntz Politikako Zuzendariaren laguntzarekin



Urkiola eta Pegenaute, Iruñean egindako aurkezpenaren. DIARIO DE NOTICIAS

NAIARA GARZIA

Joan den ostegunean Pello Urkiolak idatzi duen liburua aurkeztu egin zuten Iruñean. *Nere hitze bertsoetan - Mi palabra en bertso* izena duen liburua aurkezpenaren Urkiolak Pedro Pegenaute Unibertsitate eta Hizkuntz Politikako Zuzendariaren lagun izan zuen.

Liburua atera berria izan arren, Pello Urkiolak idatzi dituen zenbait bertso hurrengo egunean komunikabide batek atera zituen. Bere bertsoetan, besteak beste, modu ezberdinetan Franko goraiatzeko du, ikastoletako irakasleak ETAren doktrina irakusten dutela adierazten du, eta Leitzako ikastolen ondorioz gaizkile bihurtzen diren txoko dela azaltzen du. Aurkezpenaren Nafarroako Gobernuako kide bat egon zen, Unibertsitate eta Hizkuntz Politikako Zuzendari, Pedro Pegenaute, eta euskara

batuaren aurka mintzatu zen eta euskalkiak defendatzea «Nafarroa Nafarroa eta Espainia izaten jarraitzeko urrats handi bat» dela azaldu zuen.

Bestealde, Pegenautek argi utzi zuen bere departamentuak ale batzuk erosi dituela, udaletxeetan eta sare publikoan banatzeko.

Patxi Zabaleta

Hitz hauek zeresan handia sortu dute. Aralarko kide den Patxi Zabaletak gogoeta hau egin du: «Oraindik ez dut liburua irakurri, baina aurrean esan behar da Leitzako herria dela Euskal Herriaren batezbestekoa eginez gero, euskarazko liburua gehien idatzi dituen herria. Liburu hau zerrenda luze honetan bat gehiago da». Honetaz gain, liburua mezuarekin ez datorrela bat azaldu du. «Garai hau bakearen alde gehien egin beharko genukeen garaia da, eta horretarako aniztasuna

onartzea ezinbestekoa da eta denon sufrimendua kontutan hartzea. Mementu honetan, esaterako, Franko goraiatzeko den liburu batekin etortzea bakearen kontra joatea dela pentsatzen dut». Pedro Pegenautek egin zituen adierazpenen inguruan ere badu iritzirik. «Pedro Pegenautek liburua aurkezpenaren egindako adierazpenak barregarriak dira, zeren eta nik hitz egingo banu batere ezagutzen ez dudana gai batetaz barregarri geldituko nintzateke. Euskararen etorkizunaren aurka jotzen du, baina barregarri gelditu da. Pegenautek argi utzi du lau urtean lan egin ondoren, ez duela ikasten hasteko lotsarik izan». Zabaletak euskararen etorkizuna «euskara batuari lotuta» dagoela azaldu du. «Unibertsitate, prentsa...euskaraz izateko euskara batua ezinbestekoa da. Pegenautek euskalkien alde hitz egiten du euskara batua zuzenean ez hitz

egiteagatik. Nire ustez Urkiolak idatzitako liburua bakea, normalizazioa eta aniztasunaren aurka doa».

Patziku Perurena

Patziku Perurena idazleak ere liburu honen harira sortu den eztabaidaren inguruan gogoeta egin du. «Edozein Pello ez al da libre bere hitza bertsoetan azaltzeko? Edozein partidu eta bere mendeko argitaletxe ere, ez al da libre liburua zelebre bat ateratzeko, eta gero boto bila berak nahi duen bezala erabiltzeko? Beraz, gure poz hau faltsua ez ote den iruditzen zait... Horregatik, bi banden arteko ijitokerien gainetik, niri auzi honen alderik ustelena iruditzen zait Pegenautek esandakoei zinezko erantzun zorrotz eta bateraturik inork eman ez izana. Hori da gure zinezko miseria. Eta nola atera miseria honetatik, inozente baten pellokaria anakronikoen inflazio hutsarekin? Ez dakit. Galde egiten dut».

Perurenaren ustez, «Pello Urkiola engainatua izan da, politikaren lilurak itsututa bizitu da, eta bere inguruko politikariek erabili egin dute. Politikari hauek gainera bertso mundua ez dute batere ezagutzen. Euskal bertsolariaren munduarekin inolako harremanik izan gabe nola da posible UPNK bertsolari bat plazaratzea?».

Pegenautearen hitzek «ez hankarik ez bururik» ez dutela argi utzi du Perurenak. «Pegenautearena larria da, baina oraindik larriagoa iruditzen zait honek izan duen erreakzio eskasa. Euskara Ofiziala erabiltzen duten instantzia guztiek erantzun bat eman beharko lukete».

Beste zenbait iritzi

Dabid Anaut euskara teknikaria da. «Larriena Nafarroko Gobernuako kide batek gure diruarekin aleak erosi eta banatuko dituela esatea da, eta berarekin aurkezpenaren agertzea. Bestela ez nau harritu, bere ideologia zein zen lehendik ere banekien, baina larria iruditzen zait eta mingarria».

Patxi Saenz Leitzako alkatearen ustez, «darria iruditzen zait horrelako liburu bat idaztea, larriagoa argitaratzea eta gazarrik larriena UPNK babesa ematea da. Mota honetako liburu hauek herriaren irudiari ez diotela batere mesederik egiten iruditzen zait. Herriaren irudia hobetzea lortu dugu eta horrelako idatziek dena hankaz gora jartzea dute helburu. UPNri azalpenak eskatuko dizkiegu eta honekin batere, zuzenketa publiko bat».

UPNko zinegotzia den Silvestre Mari Zubiturren ustez, aldez, «belauniko isilik bagaude ez dago polemikarik, baina baten batek zerbait esaten badu, akabo». Zubiturren arabera «azken batean, jende asko dago hori pentsatzen duena, baina jendeak beldurra hezurretaraino sartuta dauka. Gainera aurrean liburua irakurri behar du jendeak. Hauek liburua irakurri gabe ondorioak ateratzen ari dira. Nik ez dakit zer demokrazia klase den hau. Bakoitzak bere iritzia ematen duenean eta errespetatzen denean, orduntxe da demokrazia».



Kutxa, mahai, aulki etab.
Altzariak • Zurgintza orokorra
Tailakeskuz eginak Zaharkinen berriartzea

San Esteban auzoa
Tel./Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Ibarra. Bizi Nahi elkartearen 25. urtemuga dela eta, Izaskunera erromeria egingo dute maiatzaren 18an: hamaiketakoa, toka lehiaketa, meza, bazkaria eta dantzaldia. Izen-ematea, elkartean.

Tolosa. Mariza kantari portugaldarraren kontzertua Leidor aretoan 21:00etan, *Mundua Tolosan* proiektuaren barruan.

Tolosa. *Klima aldaketa eta Bizkaiko Itsasoari dakarkion eragina* gaiaz ariko dira Margarita Marin metereologoa eta Adolfo Uriarte Ozeanografiako doktorea Kultur Etxean 20:00etan. Aukerzlea: Javier Urrutia biologoa. Naturaldia jardunaldien baitan.

Tolosa. Jose Mari Perez Busteroren inmigrazioari buruzko *Los nuevos vascones* liburua aurkezpena udal batzar aretoan 19:30ean. Aurkezlea: Antton Izagirre. Saad Malec-ek bere esperientzia azalduko du.

Tolosa. Urdiña Txiki elkarteak festa ospatuko du asteburuan: bihar 19:00etan meza Santa Maria parrokiaren eta etzi 10:30ean salda; 11:30ean toka; 13:00etan poteo eta 14:30ean bazkaria elkartean.

Zizurkil. Pedro Mari Otaño ikastetxeko haurrek bi antzezlan eskainiko dituzte 15:30ean Abulondon, Zizurkilgo V. Antzerki Astean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Goizuetan. Apeztekoa, L.M. Kale Nagusia, 64. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5. 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Animalia, paisaia, eraikina...

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Nahiz eta egunkarian ez argitaratu, lehiaketara heldu diren argazki guztiak ikusgai daude gure webgunean

'ERLEAK' ▶

Aitziber Makibar (Ibarra).

Argazki eder hau bidali du ibarbar honek gure lehiaketara. «Gipuzkoako bihotzeko herri batetan ateratako argazkia da. Herrialde askotan erleak desagertzen ari diren honetan (teoria batek mugikorrenatik dela dio), behintzat, oraingoz Euskal Herrian gehiegi bilatu gabe aurki ditzazkegu», dio Aitziberrek.



ALMERIA ▶

Jaione Aranburu (Zizurkil).

Almeriatik heldu zaigu hurrengo argazkia. «Almerian atera genuen argazki hau. Penintsulan birginitatea galdu ez duen kosta bakarra», dio zizurkildarrak.



BURGOS ▶


Ane Zabala (Tolosa).

Ane Zabala Burgosera egin du bidaia pasa den Aste Santuan. «Aste Santuan Burgosen egon gara egun batzuk pasatzen. Argazki hau katedrala da eta atera nuen oso polita zelako eta asko gustatu zitzaidalako».

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Josune Zalakain (Alegia). Zorionak eta besarkada handi bat zure lankideen partetik.



URTE ASKOAN
Joseba Lopetegui Olaetxea (Urkizu). Gaur 5 urte. Zorionak maitai! Muxuak ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Oier Apeztekoa Muñagorri. Gaur 4 urte. Zorionak Leire eta familiararen partetik.



URTE ASKOAN
Maria Dolores eta Jose Angel. Zorionak familia guztiaren partetik. Jarraitu horrelaxe ta eutsi goiari!! Muxu handi bat.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...